



FRANCISCA DE ACULODI

Sariaren XII edizioa

Genero ikuspegia EHUko Gradu amaierako lanetan barne hartzearen FRANCISCA DE ACULODI Sariaren XII. Edizioaren —2024/2025 ikasturtea— Arte eta Giza Zientziak jakintza adarraren epaimahaia bildu da, eta deialdi honetan honako Gradu hauetako aurkezturiko 7 lanak aztertu ondoren, epaimahaiak sariak honako lan hauei ematea erabaki du:

Euskaraz:

Emakumezko apaizgoa mundo feniziar-punikoan

Gaztelera edo beste hizkuntzaz:

Análisis de estrategias discursivas de la ultraderecha en contra del feminismo en redes sociales

Deialdiaren 3. puntua betetzeko

“Epaimahaiek 2026ko otsailaren 14a baino lehen argitaratuko du deialdiaren emaitza <https://www.ehu.eus/es/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/-/francisca-de-aculodi-xii-edizioa>. orrian, honako hauen berri emanaz: irabazlearen izena, tutorearen izena eta Saila, zein Gradu eta ikastegikoa den, eta saritutako lanaren edo lanen laburpena”.



Euskaraz eginiko lanaren irabazlea:

Irati Martin Garcia

Historia gradua

Tutorea: Denis Álvarez Perez-Sostoa

Emakumezko apaizgoa mundo feniziar-punikoa

LABURPENA

Lan honek helburu du gizarte feniziar-punikoko erlijioan emakumeen presentzia aztertzea, zehazki, apaizgoaren esparruan. Horretarako, kosmobisio feniziar-punikora eta haren bilakaerara hurbilpen labur bat aurkezten da. Panteoi feniziar-punikoen tokian tokiko egitura politeista azalduko da, baita nola egitura horrek ahalbidetu zuen hainbat jainkoren elkarbizitza, hiriaren ongizatea eta, bereziki, monarkiaren legitimazioa ere. Paraleloki, komunitatean erlijioak zuen presentzia zabala nabarmenduko da, beharrezkoa baita, deskribapen hutsetik haratago, egitura politiko-erlijiosoak behar bezala ulertzeko. Froga epigrafiko eta literarioen bidez, ikusiko da nola hasieran erregeek apaiz-funtzio nagusiak hartu zituzten, kultura babestu eta finantzatu; eta nola, denborarekin, aginte erreala eta erlijiosoak bereizten hasi ziren, khn titulua tenpluko espezialisten esku utzi zelarik.

Hori oinarri hartuta, emakume feniziar-punikoa aurkezten da gizartearen baitako eragile aktibo gisa; bere jatorria eta jarduteko gaitasuna edozein izanik ere, aldaketaren eta garapenaren eremu guztietan parte hartu baitzuen. Kasu hau aztertzeko bide desberdinak laburki aurkeztu ostean, errituetan emakumeek izan zuten rola jarraitzeko aukera ematen duen ikuspegia hautatzen da, Antzinateko egunerokotasunean erabat integratuta zeuden errituen arabera. Hala, emakumezko liturgia kidegoari buruzko ibilbide bati ekingo zaio goi-kargu erlijiosoekin hasita; ondoren, musikariekin, dantzariekin eta negar-egileekin jarraituz; gero, magia-praktikek utzitako aztarna urriak aipatuz; eta ugalkortasunari eta sexualitateari loturiko erritu eztabaidagarriekin amaituz.

Oro har, azterlan honek emakumeen parte-hartzearen konplexutasuna eta aniztasuna agerian jarri nahi ditu kultu feniziar-punikoko testuinguruan, haien eginkizuna menpekotasunean soilik ez, baizik eta komunitateen legitimazio erlijioso eta sozialean ere kokatuz. Azkenik, gonbidapena luzatzen du gaur egungo aurreiritziak zalantzan jartzera eta sarri alborautako iraganaren aberastasuna eta konplexutasuna aitortzera.

Gaztelaniaz eginiko lanaren irabazlea:

Ana Isabel Dacosta Dominguez

Filología Hispanikoa gradua

Tutorea: Laura Vela Plo

Análisis de estrategias discursivas de la ultraderecha en contra del feminismo en redes sociales

LABURPENA

En el siguiente trabajo académico se analizan las estrategias discursivas en contra del feminismo que utiliza el partido de ultraderecha español Vox en la red social X. Para ello, se han recopilado 75 tuits colgados en su cuenta oficial @vox_es entre 2017 y 2025, utilizando como filtros las palabras «feminismo», «feminazi», «feminista», «8m» y «género». El objetivo principal de este estudio es, por una parte, conocer qué estrategias se usan en la construcción de una narrativa negativa sobre el feminismo y, por otra parte, caracterizar la representación del feminismo en los mensajes que Vox cuelga en la red social. Para alcanzar este propósito, la investigación que nos atañe se ha basado en la observación de las estrategias de nominación, predicación, argumentación, enmarcado e intensificación. Para complementar la explicación de estas estrategias, se ha introducido una sección explicando la ideología de los partidos de ultraderecha para entender mejor cómo Vox utiliza el lenguaje y las estrategias discursivas para menoscabar el feminismo. También se incluye una sección que funciona como aproximación a las características de las redes sociales respecto a la expresión del feminismo en internet y al trato que reciben las mujeres en X.

Tras realizar el análisis, ha sido posible concluir que la ideología del partido se basa en crear un marcado distanciamiento entre sus propios valores y los del feminismo, destacando los aspectos positivos de Vox y enfatizando lo que el movimiento hace mal. Asimismo, el feminismo se enmarca como peligroso e inútil. Además, a través del empleo de diferentes herramientas, así como del uso de la ironía, se consigue intensificar su discurso antifeminista. Esta ampliación de la investigación busca proporcionar una visión más completa de cómo se puede utilizar el lenguaje para construir una narrativa en función del interés de quien aplique las estrategias discursivas que se mencionan.